

KONPROMISOA, DATU-BABESAREN ALORREKOA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO TRATAMENDU-ERAGILE GISA HARTUA BITARTEKARITZA ZERBITZUA EMATEAN, SOIL-SOILIK HEZKUNTZA-ESPARRUTIK LAN-ESPARRURAKO TRANTSIZIO-PROZESUAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENERAKO ZERBITZUAREKIN LOTUTA.

Erakunde bat Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaile egiten bada, hezkuntza-esparrutik lan-esparrurako trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko “Lehen Aukera” programaren deialdiaren barruan (*Ebazpena, 2021eko abenduaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita gazte langabeak euskal enpresetan kontratatuzeko 2022rako laguntza-deialdia. Lehen Aukera programa. EHAA, 2021-12-31*), Lanbideren titulartasuneko datuen tratamendu-eragile bihurtzen da, eta, beraz, behean adierazten diren konpromisoak hartzen ditu, arau hauen arabera: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

1.– Helburua

Konpromiso hau sinatzen duen erakundeak agiri honen bidez onartzen du datuak honako helburu honetarako baino ez direla erabiliko: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea, bitartekaritza-zerbitzua ematean, soil-soilik hezkuntza-esparrutik lan-esparrurako trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipenerako zerbitzuarekin lotuta.

Tratamenduak barne hartuko ditu:

- Enpresak zuzenenean hautatzen dituen gazteen lan-eskaerak berreskuratzea, berritzea, berrikustea eta aldatzea.
- Egiaztatzea kontratatutako gazteak Gazte Bermea Sistemari izena emanda daudela, kontratua sinatu aurreko egunetik, gutxienez.
- Ziurtatzea eta bermatzea enpresak zuzenenean hautatzen dituen gazteek, kontratua sinatzeko unean, *2021eko abenduaren 13ko ebazpenaren 5.1. artikuluan* adierazitako baldintzak betetzen dituztela.
- Kontratutako pertsona Lanbideko informazio-sisteman identifikatzea Lehen Aukera programaren bidez sustatutako kontratu bati lotutako pertsona gisa.

2.– Tratamendu-eragilearen betebeharrak

Erakunde tratamendu-eragileak datu pertsonal horiek tratatuko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako jarraibideen arabera, eta behar diren bermeak emango ditu neurri tekniko

eta antolatzaile egokiak aplikatzeko, tratamendua legezko betekizunen arabera izan dadin, betiere interesdunen eskubideen babesa bermatuz.

Erakunde tratamendu-eragileak hitzematzen du bete egingo dituela 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, DPBEBLO) eta 2016/679 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, DBEO) datu pertsonalen segurtasunari buruz jasotako betebeharrak; bereziki, azken horren 32. artikulutik 36. artikulura bitartekoetan jasotakoak.

Tratamendu-eragileak eta haren langile guztiek betebeharrak hartuko dituzte bere gain:

- a. Tratamenduaren barruko datu pertsonalak edo sartzeko biltzen dituztenak enkargu honen xederako soilik erabiltzea. Inolaz ere ezingo dira erabili xede propioetarako.
- b. Tratamenduaren arduradunaren berariazko baimena izan ezean, datu pertsonalak ezingo zaizkie hirugarren pertsonari komunikatu edo zabaldu, ezta gordetzeko ere.
- c. Datuak tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera tratatzea.
- d. Idatziz eramatea tratamendu-jardueren erregistro bat, arduradunaren kontura egindako tratamendu-jardueren kategoria guztiak bilduz, eta DPEOren 30. artikuluan eta DPBEBLOren 31. artikuluan ezarritakoa betetz.
- e. Kontratu honen xede den edozein prestazio ez azpikontratatzea, datu pertsonalen tratamendua baldin bada, salbu eta tratamendu-eragilearen zerbitzuen ohiko funtzionamendurako behar diren zerbitzu osagarriak.
- f. Enkargu honen bidez eskuratutako datu pertsonalei buruz sekretua gordetzeko eginbeharra betetzea, bai eta xedea amaitu ondoren ere.
- g. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsona guztiek konpromisoa hartzen dutela, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna errespetatzeko eta segurtasun-neurriak betetzeko. Horretarako, neurri horien berri eman beharko zaie, era egokian. Eginbehar hori hedatzen zaie, halaber, tratamendu-eragilearen kontura datu pertsonalen tratamenduaren faseetako edozeinetan parte har dezaketen pertsona guztiei. Izan ere, tratamendu-eragilearen betebeharra da organikoki eta funtzionalki bere menpe dauden pertsonari irakastea sekretu-eginbehar hori, bai eta eginbehar horri eutsi behar diotela ere, are enkargua amaitu ostean edo zerbitzutik kanpo geratu ostean ere.
- h. Arduradunaren eskura izatea aurreko apartatuan ezarritako eginbeharra betetzen dela egiaztatzeko agiriak.
- i. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonak badutela datu pertsonalen babesaren arloan beharrezkoa den prestakuntza.
- j. Datu-bilketa egiten duenean, informazioa ematea egingo dituen datu-tratamenduei buruz. Informazioa emateko idazkera eta formatua tratamenduaren arduradunarekin adostu behar da, datu-bilketari ekin aurretik.

- k. Tratamenduaren arduradunari laguntzea erantzuna ematen eskubide hauen egikaritzari: datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, aurka egitea, tratamendua mugatzea, datuak eramatea eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izatea (profilak egitea barne). Tratamenduak eragindako pertsonak beren eskubideak baliatzean aurkeztutako eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari helaraziko zaizkio, hark ebatz ditzan.
- l. Tratamenduaren arduradunari jakinaraztea, bidegabeko atzerapenik gabe, eta betiere hirurogeita hamabi (72) orduko gehieneko epea igaro aurretik, bere ardurapean dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, halakoren baten berririk badu, segurtasun-intzidentzia dokumentatzeko eta jakinarazteko informazio garrantzitsu guztiarekin batera.
- m. Datuen segurtasunaren urraketak lehenbailehen komunikatzea interesdunei, urraketak pertsona fisikoen eskubide eta askatasunak arrisku handian jarri baditzake.
- n. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntzea datuak babesteari buruzko inpaktu-ebaluazioak egiten eta kontrol-agintaritzari aldez aurreko kontsultak egiten, hala badagokio.
- o. Segurtasun-neurri egokiak ezartzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ardurapean dauden datuak eta lehen estipulazioan adierazitako jardueretarako eskuratu beharrekoak baimenik gabe erabili ez daitezen. Nolanahi ere, tresnak ezarri beharko dira helburu hauek lortzeko:
 - i. Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzea.
 - ii. Intzidente fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzea.
 - iii. Aldian-aldian egiaztatzea, ebaluatzea eta baloratzea tratamenduaren segurtasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolatzaileen eraginkortasuna.
 - iv. Datu pertsonalak izenordetzea eta zifratzea.
- p. Datuak babesteko ordezkari bat izendatzea, legezko betebeharra izanez gero, eta haren identitatearen eta harremanetarako datuen berri ematea arduradunari.
- q. Arduradunaren eskura jartzea eginbeharrak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia, bai eta arduradunak edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako beste auditore batek auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar dena ere.
- r. Datu pertsonalak babesteko araudia eta erantzukizun aktiboaren betebeharra betetzen direla egiaztatzen duten ebidentziak edukitzea. Adibidez: betearazpen-mailari buruzko aurretiazko ziurtagiriak, auditoretzen emaitzak, jarrera-kodeetara atxikitzea, eta abar. Era berean, kontratua indarrean den bitartean, tratamenduaren arduradunaren esku jarri beharko ditu daukan informazioa, igorritako ziurtagiriak eta egindako auditoretzak.

- s. Erakundeak hitzematzen du bere instalazioetan eskuragarri izango dituela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako datuak, bien arteko harreman juridikoa indarrean den aldi guztian zehar. Halaber, gorde behar ez dituen edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli behar ez dizkion euskarriak suntsitu egingo ditu.
- t. Lanbiderekin duen harremana amaitutakoan, honako hauek itzuli beharko ditu:
- i. Eskuratu diren datu pertsonalak;
 - ii. Erakunde laguntzaileak tratamenduaren ondorioz sortu dituen datu pertsonalak;
 - iii. Datu horietako edozein jasotzen duten euskarriak eta agiriak, kopiarik gorde gabe.

Erakunde tratamendu-eragileak, hala ere, erantzukizunak egon daitezkeen aldi osoan gorde ahal izango ditu datuok. Azken kasu horretan, datu pertsonalak blokeatuta eta ahalik eta denbora laburrenean gordeko dira. Epe hori amaitzean, behin betiko suntsituko dira, modu seguruan.

3.- Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak

Enkargu honen xedea betetzearen ondoriozko prestazioak bete ahal izateko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, tratamenduaren arduraduna baita, tratamendu-eragilearen eskura jartzen du enplegu-politika aktiboen eta bitartekaritzaren eskatzaileen jardura garatzeko beharrezkoa den informazioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Bitartekaritza aplikazioaren bidez eskura baitaiteke.

Datu pertsonalen kategoria hauek jarriko dira tratamendu-eragilearen esku:

- Identifikazio-datuak;
- Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak;
- Gizarte-inguruabarrei buruzko datuak;
- Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak;
- Enpleguari buruzko datu zehatzak;
- Ekonomia- eta finantza-datuak eta aseguruiei buruzkoak;
- Transakzioei buruzko datuak;
- Datu-kategoria bereziak: osasuna, genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima, gizarte-bazterketa.

Datu horien titularrak diren pertsonen kategoriaak dira enplegu-eskatzaile gisa inskribatutako pertsonak eta enplegu eta prestakuntzarako zentroak.

Tratamenduaren arduradunari dagokio:

- a. Tratamendu-eragileari entregatzea dokumentu honen 3. estipulazioan adierazitako datuak. Honela egingo entrega hori: tratamendu-eragileari sarbidea emanda Bitartekaritza aplikazioa erabiltzeko, 4. estipulazioan adierazitakoaren arabera.
- b. Tratamendu-eragilearen eragiketek datu pertsonalen babesari ekarri ahal dioten arriskua analizatzea edo inpaktua ebaluatzea.
- c. Dagozkion alde zuzeneko kontsultak egitea.
- d. Tratamendu-eragileak DBEO eta DPBEBLO betetzen dituela zaintzea, alde zuzenetik eta tratamenduaren iraunaldian.
- e. Tratamendua gainbegiratzea, besteak beste ikuskapenak eta auditoretzak eginez. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntzaile bihurtzen den erakundeak onartu egingo du Lanbideren auditoretza-organo egokiak erabakitzen dituen kontrol- eta gainbegiratze-jardunen mende jartzea, lagatuko informazioa behar bezala lortu eta erabiltzen dela eta aplikatzeak diren baldintza arauemaileak betetzen direla egiaztatzeko.

4.- Datuen tratamendua Lanbideren euskarrietan

Enkargu hau betetzeko, erakunde tratamendu-eragileak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Bitartekaritza aplikaziorako sarbidea izango du. Aplikazio hori izango da datuetarako irispidea. Tratamendu-eragileak datuak deskargatu, kopiatu, edo aplikazio horretatik kanpo nolabait atera baditu, eta enkargua amaitu ostean datu horiek gordeta badauzka, tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, DBEO eta DPBEBLO ezarritakoari jarraituz.

Aplikazioan sartu eta hura erabiltzean, tratamendu-eragileak betebeharrak izango ditu:

- a. Bitartekaritza aplikazioko erabiltzaileen zerrenda eguneratua edukitzea. Tratamendu-eragileak izendatutako eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako pertsonak bakarrik sartu ahal izatea. Lanbidek baimendutako pertsonaren batek tratamendu-eragilearentzat lan egiteari uzten badio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eman beharko zaio horren berri, erabiltzaile horri baja eman diezaion.
- b. Bitartekaritza-zereginetan diharduten guztiei adieraztea zer konpromiso hartzen duten, hau da, Bitartekaritza aplikazioa helburu horietarako soilik erabiltzekoa, eta, halaber, zer erantzukizun onartzen dituzten datuen konfidentziasunari buruz. Datuok sekretu profesionalaren menpe izan beharko dituzte eta gorde egin beharko dituzte. Eginbeharrak horiek iraun egingo dute erakunde laguntzailearekin izandako harreman juridikoa amaitu ondoren ere. Ondore horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko segurtasun-araudia onartzeko konpromisoa sinatu beharko dute pertsona baimendunek.
- c. Erabiltzaile bakoitzari esleitutako identifikazio-datu eta sarbide-gakoak pertsonalak eta besterenezinak dira, eta erabiltzailea izango da haiek gaizki erabiltzeak, zabaltzeak edo

- galtzeak eragin ditzakeen ondorioen erantzule bakarra. Galarazita dago aplikazioan norberarena ez den erabiltzaile-identifikazio batekin sartzea, bai eta inori pasahitz eta guzti komunikatzea edo lagatzea ere.
- d. Pasahitza gako sekretu bat izango da, erabiltzaile-identifikatzailearen jabeak soilik jakingo duena, eta haren identitatea egiaztatzeko aukera emango du. Berariaz debekatuta dago norberaren pasahitza jakitera ematea. Horrekin lotuta, erabiltzaile bakoitzak erantzukizun hauek izango ditu:
- i. Pasahitza zaintzea, isilpean gordetzea, eta idatzita ez uztea beste erabiltzaile batzuek edo kanpoko pertsonak ikusteko moduko tokian.
 - ii. Beste erabiltzaileei eragozteak pasahitz horren erabilera.
- e. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aplikazioan dagoen informazio guztia Lanbideren jabetzakoa da, eta konfidentziala da. Erabiltzaile bakoitzari bere eginkizunak gauzatzeko beharrezkoak dituen datu eta baliabideetarako sarbidea baino ez zaio baimenduko.

5.- Datuak babesteari buruzko araudia betetzea

Agiri honen bidez, bi aldeek men egiten diote datuak babesteari buruzko araudiari (DBEO eta DPBEBLO), horixe izango delarik nahitaez bete beharreko araubide juridiko aplikagarria. Ondorioz, bi aldeek errespetatu eta bete behar dituzte datuak babesteari buruzko araudian ezartzen diren betebeharrak eta estipulazioak.

Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, alde biek nahitaez bete beharko dituzte konpromiso honetan nahiz agiriaren hasieran aipatzen den ebazpenean datuen babesari buruz aipatzen diren betebeharrak eta estipulazio guztiak.

6.- Konpromisoak urratzea

Erakunde laguntzaileak adierazten du jakinaren gainean dagoela eta berariaz onartzen duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edozein unetan eta alde bakarretik baliogabetu ahal izango duela erakunde laguntzailearen izendapena, baldin eta ikusten badu ez dela bete dokumentu honen bidez hartutako konpromisoetako edozein edo ez dela gauzatu auditoria-jarduerarako beharrezko lankidetzak.

Hartutako konpromisoak betetzen ez badira, baimendu gabeko erabiltzaile batek informazioa eskuratzen badu, agindutako eginkizunerako beharrezkoak ez diren prozesuak edo transakzioak esleitzen badira, edota eskuratutako informazioa gorde edo zaintzen ez bada, era guztietako erantzukizunak eskatuko dira, baita erantzukizun penala ere, eta, zehazki, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. tituluan ezarritakoak.

7.- Iraupena

Konpromiso honi eutsi egingo zaio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde laguntzaileak izaera hori izaten jarraitzen duen aldian.

Vitoria-Gasteiz, 2022koaren (e)(a)

Legezko ordezkariaren edo pertsona baimenduaren sinadura eta erakundearen zigilua